

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Europako erronka batean parte hartu du Pau hirian, 2018ko Kirolaren Europako Hirian

NKGIk topaketa antolatzen parte hartu du; topaketa Aragoi, Pirinio Atlantikoak eta Gipuzkoarekin sinatutako mugaz haraindiko hitzarmenean kokatzen da

Astelehena, 2018.eko irailak 24

Nafarroak Frantziako Pau hirian asteburu honetan izandako kirol-topaketa batzuetan parte hartu du. Pau 2018ko Kirolaren Europako Hiria da, eta Europako lurralde eta hiri ezberdinek parte hartu dute. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua topaketa horien antolatzaileetarikoa izan da; hain zuzen ere, Aragoi, Pirinio Atlantikoak, Gipuzkoa eta Nafarroa artean, kirol-jarduerak egiteko, sinatutako mugaz haraindiko hitzarmenean kokatzen dira.



Nafarroako ordezkariak Pau.

Era horretan, irailaren 22an eta 23an, beste ordezkariak batzuekin esperientziak partekatzeaz gain, Nafarroako ordezkariak batek, kirolaren arloko hiru emakumek eta hiru gizonen osatuak (20 eta 50 urte artekoak), kirol eta jolas izaerako jarduera ezberdinak egin ditu: ur-amiletako piragua, pilota, saskibaloia, igeriketa, e.a. Horiekin batera, osasunera eta kirolera bideratutako prestakuntza-hitzaldiak izan dituzte.

Halaber, Pauko lekuri enblematikoenak, hango ondarea, hirigunea edo kirola praktikatzeko guneak ezagutu ahal izan dituzte.

Aragoi, Pirinio Atlantikoak, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko hitzarmena garatzen jarraituko da nerabeei zuzendutako kirol eta kultur programa antzekoarekin. Nafarroa Agoitzeko DBHko ikasleek ordezkariak dute.



Nafarroako taldea.